

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 767/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, 2008ko uztailaren 9koa, Bisen Informazio Sistemari (BIS) eta estatu kideen artean epe motzeko bisen datuak trukatzeari buruzkoa.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) N° 767/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 9 de julio de 2008, sobre el Sistema de Información de Visados (VIS) y el intercambio de datos sobre visados de corta duración entre los Estados miembros (Reglamento VIS)» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 218/60 de 13/8/2008*)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 767/2008 (EE) ERREGELAMENDUA**

### **2008ko uztailaren 9koa Bisen Informazio Sistemari (BIS) eta estatu kideen artean epe motzeko bisen datuak trukatzeari buruzkoa (BIS Erregelamendua)**

#### **EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK**

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturia eta, bereziki, haren 62. artikuluko d) idatz-zatia, ii) puntua eta 66. artikulua aztertu dute, Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki <sup>(1)</sup>,

(1) Kontseiluak 2001eko irailaren 20an egindako ondorioetan, eta Kontseilu europarrek 2001eko abenduan, Laekeneko; 2002ko ekainean, Sevillan; 2003ko ekainean, Salonikan; eta 2004ko martxoan, Bruselan egindako ondorioetan oinarrituz, Bisen Informazio Sistema (BIS) ezartzea da Europar Batasunak askatasun, segurtasun eta justizia esparru bat sortzeko abian jarritako politikaren funtsezko gakoa.

(2) Kontseiluaren 2004/512/EE Erabakiak, 2004ko ekainaren 8koak, Bisen Informazio Sistema (BIS) ezartzen duenak <sup>(2)</sup>, estatu kideen artean bisen datuak trukatzeko sistema bat ezarri du.

(3) Gaur egun, BIS sistemaren helburu, funtzionalitate eta ardurak zehaztu behar dira, eta estatu kideen artean bisei buruzko datuak trukatzeko prozedurak zehaztu behar dira, era horretan bisa-eskaerak errazago aztertu eta erabaki bat errazago hartzeko, betiere kontuan hartuz Kontseiluak 2004ko otsailaren 19an BIS sistema garatzeko egindako gomendioak. Horrez gain, Batzordeari eskumena eman behar zaio BIS sistema sortzeko.

(4) Trantsizio-epetan eta behin behineko epean zehar, Batzordearen esku egongo da BIS sistema nagusiaren kudeaketa operatiboa, baita estatu-taketo interfazeen kudeaketa eta BIS nagusiaren eta estatu-taketo interfazeen arteko komunikaziorako azpiegituraren hainbat alderdi ere. Epe luzera, eraginaren ebaluazio bat egin beharko da. Ebaluazio-txosten horretan aztertu beharko da finantza, eragiketa eta antolaketa-ikuspegiaren arabera zein hautabide dauden, eta zehaztu beharko da Batzordeak zer lege-proposamen egin dituen ere. Jarraian, eduki horietan ardura izango duen kudeaketa-agintaritza iraunkor bat sortu beharko da. Behin-behineko epe hori bost urtekoa izango da gehienez, Erregelamendu hau aplikatzen den egunetik aurrera.

(5) BIS sistemaren helburua da hobeto aplikatzea bisen politika bateratua, lankidetzaren hobetzea kontsularen artean eta bisen esparruan eskudunak diren agintari nagusien artean, estatu kideen artean bisei buruzko datuak trukatzeko, bisa-eskaerak eta horiei buruzko erabakiak hartzea errazteko. Horren helburu nagusia da bisa eskatzeko prozedura erraztea, komenentziako bisak ekiditea, iruzurraren aurkako borroka erraztea, eta kontrola erraztea Europar Batasuneko kanpoko mugetako nahiz estatu kideen mugetako igarobideetan. Halaber, BIS sistemak laguntza eman behar du estatu kideen lurraldean sartu, egon edo bizitzeko eskatzen diren baldintzak bete ez edo betetzeari uzten dion edozein pertsona identifikatzeko, baita Kontseiluaren 343/2003 (EE) Erregelamendua, 2003ko otsailaren 18koa, hirugarren estatu bateko herritar bateko estatu kide batean aurkeztutako asilo-eskaera aztertzeko estatu kidea zehazteko irizpide eta mekanismoak ezartzen dituen aplikatzeko <sup>(3)</sup>, baita edozein estatu kideetan barne-segurtasunaren kontrako arriskuak ekiditen laguntzeko ere.

(6) Erregelamendu hau bisei buruzko politika multzoan dago oinarrituta. BIS sistemaren tratatu behar diren datuak zehaztu behar dira Kontseiluaren 2002/354/EE Erabakiak, 2002ko apirilaren 25ekoak, III. Atalaren eta Kontsulatuaren Instrukzio Bateratua <sup>(4)</sup> ezartzeari buruzkoak, xedatutako bisa-eskaerarako inprimaki normalizatuaren bidez emandako datuen arabera; baita Kontseiluaren 1683/95 (EE) Erregelamendua, 1995eko maiatzaren 29koak, bisa-eredu uniforme bat ezartzen duenak <sup>(5)</sup> aurreikusitako bisa-etiketa itsasgarriari buruz emandako informazioaren arabera ere.

(7) BIS sistema konektatu behar da estatu kideetako estatu mailako sistemetara, estatu kideetako agintari eskudunek ikus ditzaten bisa-eskaerei, nahiz igorritako, ukatutako, ezeztutako, erretiratutako edo luzatutako bisei buruzko datuak.

---

(1) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko ekainaren 7koa (C 125 E EO, 2008.5.22koa, 118. or.), eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko ekainaren 23koa.

(2) L 213 EO, 2004.6.15ekoa, 5. or.

(3) L 50 EO, 2003.2.25ekoa, 1. or.

(4) L 123 EO, 2002.5.9koa, 50. or.

(5) L 164 EO, 1995.7.14koa, 1. or. Azken aldiz, 1791/2006 [EE] Erregelamendua (L 111 EO, 2006.12.20koa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(8) BIS sisteman datuak sartu, aldatu, ezabatu eta kontsultatzeko baldintza eta prozedurek kontuan eduki beharko dituzte Kontsulatuaren Instrukzio Bateratua zehaztutako prozedurak, hain zuzen ere misio diplomatiko eta kontsul-etxeko bulegoetarako xedatutakoak <sup>(1)</sup> («Kontsulatuaren Instrukzio Bateratua»).

(9) BIS sisteman sartu behar dira bisen esparruan eskumena duten agintari nagusien kontsulta-sareko funtzionalitate teknikoak, Schengengo Akordioa aplikatzeko Hitzarmenaren 17. artikuluko 2. paragrafoan xedatzen den moduan (Benelux Erkidego Ekonomikoko Estatuaren, Alemaniako Errepublikaren eta Frantziako Errepublikaren gobernuen arteko hitzarmena, estatu horien mugetan kontrolak pixkanaka ezabatzeari buruzkoa) <sup>(2)</sup> («Schengengo Akordioa»).

(10) BIS sisteman datu biometrikoak eduki behar dira, bisa-eskatzaileak modu fidagarrian egiaztatu eta identifikatzeko.

(11) Estatu kide bakoitzeko erakundeetan behar bezala identifikatu beharko dira BIS sistemako berariazko helburuetarako datuak sartu, aldatu, ezabatu edo kontsultatzeko eta sisteman sartzeko eskubide nahiz baimena izango duten langileak, Erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera, bere funtzioak egiteko beharrezkoa den heinean.

(12) BIS sistemako datuei egindako tratamendu oro lortu nahi diren helburuei begira egin behar da, betiere beharrezkoak badira agintari eskudunek beren funtzio guztiak betetzeko. BIS sistema erabiltzeko orduan, agintari eskudunek bermatu beharko dute tratatutako datuetan aipatzen diren pertsonen duintasuna eta osotasuna errespetatzen direla, eta ezingo dituzte pertsonak sexu, arraza edo etnia, erlijio edo sinesmen, ezintasun, adin edo sexu-orientazioagatik baztertu.

(13) Erregelamendu hau tresna juridiko bereizi baten bitartez osatu behar da, hain zuzen ere, Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren VI. tituluan, barne-segurtasunerako agintariak BIS sistemako datuak kontsultatzeko sarbideari buruzkoan, xedatutakoari jarraiki.

(14) BIS sisteman gordetzen diren datu pertsonalak ez dira gordeko BIS sistemaren helburuak lortzeko baino denbora luzeagoan. Komenigarria da datu horiek gehienez bost urtean gordetzea, bisa-eskaerak aztertzean, alde aurretik egindako eskaerei buruzko datuak ikusi ahal izateko, horren barne eskatzaileen borondate ona frogatu eta bisa bat eskatu ahal izan duten etorkin ilegalei buruzko datuak edukitzeko. Helburu horretarako, ez litzateke nahikoa izango bost urte baino gutxiagoko epea. Datu horiek bost urteko epea igaro ondoren ezabatu behar dira, baldin eta lehenago horiek ezabatzeko arrazoirik egon ez bada.

(15) BIS sistemaren ezarpenaren eta funtzionamenduaren inguruan erantzukizunak zehazteko arau zehatzak ezarri behar dira, baita estatu kideetako agintariak sistema horretan duten sarbide eta erantzukizunak zehazteko ere.

(16) Estatu kideek Erregelamendu honetako xedapenak hausteagatik sortutako kalteetan duten erantzukizuna zehazteko arauak ezarri behar dira. Kalte horietan Batzordeak duen erantzukizuna arautzen du Tratatuaren 288. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoak.

(17) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/46/EE Zuzentaraua, 1995eko urriaren 24koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien joan-etorri askeari dagokionez, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa <sup>(3)</sup>, aplikatzen da estatu kideek Erregelamendu honen aplikazioan egin beharreko datu-tratamenduan. Hala ere, datuen tratamenduaren ondoriozko erantzukizunari, interesatuen eskubideak babesteari eta datuen babeserako kontrolari buruzko hainbat puntu argitu behar dira.

(18) Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 45/2001 (EE) Erregelamendua, 2000ko abenduaren 18koa, Erkidegoko erakundeek datu pertsonalei eman beharreko trataeran pertsona fisikoei eman beharreko babesari eta datu pertsonal horien joan-etorri

askeari buruzkoa <sup>(1)</sup>, aplikatzen da BIS sistemaren kudeaketaren ardura duten Erkidego mailako erakunde eta organismoen jardueretan ere. Hala ere, datuen tratamenduaren ondoriozko erantzukizunari eta datuen babeserako kontrolari buruzko hainbat puntu argitu behar dira.

(19) Estatu mailako kontrol-agintariak, 95/46/EE Zuzentzarauko 28. artikuluen arabera sortutakoek, bermatu behar dute estatu kideek modu legalean ematen dietela tratamendua datu pertsonalei; eta Datuak Babesteko Europako Ikusatzailak, 45/2001 (EE) Erregelamenduaren arabera sortutakoak, Erkidego mailan datu pertsonalekin lan egiten duten erakunde eta organismoen jardura kontrolatu behar du, betiere kontuan hartuz erakunde eta organismo horiek datu horiekin lan egitean dituzten mugak.

---

(1) C 326 EO, 2005.12.22koa, 1. or. Azken buruan Kontseiluaren 2006/684/EE Zuzentzarauak aldatu zuen Zuzentzaraua (L 280 EO, 2006.10.12koa, 29. or).

(2) L 239 EO 2000.9.22koa, 19. or. Azken aldiz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1987/2006 [EE] Erregelamendua (L 381 EO, 2006.12.28koa, 4. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(3) L 281 EO, 1995.11.23koa, 31. or. 1882/2003 (EE) Erregelamendua aldatutako Zuzentzaraua (L 284 EO, 2003.10.31koa 1. or)

(1) L 8 EO, 2001.1.12koa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(20) Lankidetzeta estua egon behar da Datuak Babesteko Europako Ikuskatzailearen eta ikuskapen agintari nazionalen artean.

(21) Aldian behin ebaluazioak egin behar dira Erregelamendu hau modu eraginkorren kontrolatzeko.

(22) Estatu kideek Erregelamendu honetako xedapenak hausteagatik aplikagarriak diren zigorrei buruzko arauak ezarriko dituzte, eta beharrezko neurri guztiak hartuko dira horien aplikazioa bermatzeko.

(23) Erregelamendu hau gauzatzeko beharrezko neurriak onartu behar dira Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera, hain zuzen ere Batzordeari esleituriko gauzatzeko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituenaren arabera <sup>(2)</sup>.

(24) Erregelamendu honek oinarrizko eskubideak errespetatzen ditu eta, zehazki, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean xedatutako oinarriak betetzen ditu.

(25) Hau da Erregelamendu honen helburua: BIS sistema ezartzea, eta estatu kideen artean bisei buruzko datuak trukatzeko betebeharrak, baldintza eta prozedura bateratuak sortzea. Ekintzaren irismen eta eragina dela-eta, helburu horiek estatu kideek bakarrik lortu ezin dituztenez, hobeto lor daitezke Erkidego mailan. Hori dela-eta, Erkidegoak helburu hori lortzeko neurriak har ditzake, Tratatuaren 5. artikuluan xedatutako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan azaldutako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erregelamendu hau ez doa helburu horiek lortzeko beharrezkoa denaz harago.

(26) Europar Batasunaren Tratatuari eta Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuari atxikita doan Danimarkaren jarrerari buruzko Protokolo 1. eta 2. artikuluei jarraiki, Danimarkak ez du Erregelamendu honen onarpenean parte hartuko eta, beraz, Danimarka ez du Erregelamendu honek arautzen edo lotzen. Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren hirugarren ataleko IV. tituluak xedatutakoari jarraiki, Erregelamendu honek Schengengo Altxorra garatzen duenez, aipatutako Protokoloaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Danimarkak sei hilabeteko epea du, Erregelamendu hau onartu ondoren, Tratatu hori bere estatu-legedian sartzen duen erabakitzeko.

(27) Islandia eta Norvegiari dagokionez, Schengengo Altxorraren xedapenak garatzen ditu Erregelamendu honek, Europar Batasuneko Batzordeak Islandiako Errepublikarekin eta Norvegiako Erreinuarekin egindako Hitzarmenean xedatutakoaren arabera. Hitzarmen hori bi estatu horiek Schengengo altxorra gauzatu, aplikatu eta garatzeko parte-hartzeari buruzkoa da <sup>(3)</sup>, eta aipatutako xedapen horiek erreferentzia egiten diete Kontseiluaren 1999/437/CE Erabakiko 1. artikuluko B idatz-zatiari <sup>(4)</sup>, hain zuzen ere Erabaki hori garatzeko arau batzuei buruzkoari.

(28) Hitzarmen bat egin behar da, beren eskumenen barruan Batzordeari laguntzen dieten komiteen lanean Islandia eta Norvegiako ordezkariak parte hartzeko. Hitzarmen hori aurreikusi da Europar Batasuneko Kontseiluak eta Islandiako Errepublikak nahiz Norvegiako Erreinuak trukaturako ohar gisa, hain zuzen ere Europar Batzordeari bere eskumenak gauzatzeko laguntzen dieten komiteei buruzkoan <sup>(5)</sup>. Kontuan hartuzkoen 27. puntuan aipatzen den hitzarmenari atxikita doa hori.

(29) Erregelamendu honek Schengengo Altxorraren xedapenak garatzen ditu, Erresuma Batuaren partaidetzarik gabe, Kontseiluaren 2000/365/EE Erabakiak, 2000ko maiatzaren 28koak, Erresuma Batua, Britainia Handia eta Ipar Irlandak Schengengo altxorreko xedapen batzuetan parte hartzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera <sup>(6)</sup>, eta aurrerago, 2004ko abenduaren 22an, Kontseiluak hartutako Erabakiak, Erresuma Batuak, Britainia Handiak eta Ipar Irlandak Schengengo altxorraren zati batzuk gauzatzeari buruzkoak <sup>(1)</sup>, xedatutakoaren arabera. Beraz, Erresuma Batuak ez du Erregelamendu honen onarpenean parte hartuko, eta beraz ez du Erregelamendu honek arautu edo lotetsiko.

(30) Erregelamendu honek Schengengo altxorraren xedapenak garatzen ditu, non Irlandak ez duen parte hartzen, Kontseiluaren 2002/192/EE Erabakiak, 2002ko otsailaren 28koak, Irlandak Schengengo altxorreko xedapen batzuetan parte hartzeko egindako eskaerari buruzkoak <sup>(2)</sup> xedatutakoaren arabera. Beraz, Irlandak ez du Erregelamendu honen onarpenean parte hartuko eta, beraz, ez du Erregelamendu honek arautu edo lotetsiko.

(31) Suitzari dagokionez, Erregelamendu honek Schengengo altxorraren xedapenak garatzen ditu, Europar Batasunak, Europako Erkidegoak eta Helvetiar Konfederazioak Schengengo altxorra gauzatu, garatu eta aplikatzeko egindako Hitzarmenaren ildoan.

---

(2) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 2000 EO, 2006.7.22koa, 11. or) aldatutako Erabakia.

(3) L 176 EO, 1999.7.10ekoa, 36. or.

(4) L 176 EO, 1999.7.10ekoa, 31. or.

(5) L 176 EO, 1999.7.10ekoa, 53. or.

(6) L 131 EO, 2000.6.1ekoa, 43. or.

(1) L 395 EO, 2004.12.31koa, 70. or.

(2) L 64 EO, 2002.3.7koa, 20. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Esparru horren barnean daude Kontseiluaren 2004/860/EE Erabakiko 4. artikuluko 1. paragrafoari buruz, 1999/437/EE Erabakiko 1. artikuluko B idatz-zatian aurreikusitakoa <sup>(3)</sup>.

(32) Hitzarmen bat egin behar da, beren eskumenen barruan Batzordeari laguntzen dieten komiteen lanean Suitzako ordezkariak parte hartzeko. Hitzarmen hori aurreikusita dago Europar Erkidegoaren eta Suitzaren artean trukaturako oharretan, eta kontuan hartuzkoen 31. puntuan aipatzen den hitzarmenari atxikita doa.

(33) Erregelamendu hau Schengengo altxorra gauzatzeko ekintza da, edo harekin lotuta dago 2003ko Atxikitze Aktako 2. zatiko 3. artikuluan eta 2005eko Atxikitze Aktako 4. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako zentzuan.

### ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

#### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

##### *1. artikulua*

#### **Helburua eta aplikazio-eremua**

Erregelamendu honek zehazten ditu 2004/512/EE Erabakiko 1. artikulua arabera sortutako Bisen Informazio Sistemari (BIS) lotutako helburu, funtzionalitate eta erantzukizunak. Baldintza eta prozedurak ezartzen ditu estatu kideek epe motzerako bisa-eskaerei buruz datuak trukatzeko, baita bisa horiei buruzko erabakiak hartzekoak ere, horien barnean bisak baliogabetu, kendu edo luzatzeko; era horretan bisa-eskaerak errazago aztertuko dira eta horiei buruzko erabakiak errazago hartuko.

##### *2. artikulua*

#### **Helburua**

BIS sistemaren helburua da bisa-politika bateratuaren aplikazioa hobetzea, baita kontsulatuaren arteko lankidetzaren eta bisen esparruan eskumena duten agintarien artean kontsultak erraztea ere, era horretan bisa-eskaeren eta eskaera horien erabakiei buruz estatu kideek datuak trukatzeko, eta era horretan helburu nagusi hauek lortzeko:

- a) bisa eskatzeko prozedura erraztea;
- b) eskaera aztertzearen ardura duen estatu kidea zehazteko irizpideak ez betetzea ekiditea;
- c) iruzurraren aurkako borroka erraztea;
- d) kontrolak erraztea kanpoko eta estatu kideen mugetako igarobideetan;
- e) Estatu kideetan sartu, egon edo bizitzeko baldintzak betetzen ez dituen edo betetzeari utzi dion edozein pertsona identifikatzen laguntzea;
- f) 343/2003 (EE) Erregelamenduaren aplikazioa erraztea;
- g) edozein estatu kideren barne-segurtasunaren aurkako mehatxuei aurre egiten laguntzea.

##### *3. artikulua*

#### **Datuen eskuragarritasuna, terrorismo-delituak eta bestelako delitu larriak saihestu, antzeman eta ikertzeko**

1. Estatu kideek izendatutako agintariak eska dezakete BIS sisteman gordetako datuak kontsultatzea, hain zuzen ere 9. eta 14. artikuluetan aipatzen direnak, betiere kasu zehatz baterako bada eta aldez aurretik baimena eskatzen bada idatziz edo elektronikoki, non BIS sisteman datuak kontsultatzeko zentzuzko arrazoiak daudela azaltzen den, era horretan terrorismo-delituak edo bestelako delitu larriak saihestu, antzeman edo ikertzen laguntzeko. Europolek eskubidea izango du BIS sisteman sartzeko bere eskumenen barne, baldin eta bere funtzioak betetzeko beharrezkoa bada.

---

(3) Kontseiluak Europar Batasunaren izenean 2004ko urriaren 25ean hartutako 2004/860/EE Erabakia, Europar Batasunak, Europar Erkidegoak eta Helvetiar Konfederazioak Schengengo altxorra gauzatu, aplikatu eta garatzeari buruz egindako Hitzarmenaren xedapen jakin batzuk sinatu eta behin behinean aplikatzeari buruzkoa (L 370 EO, 2004.12.17koa, 78. or.)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. 1. paragrafoan aipatutako kontsulta egingo da sarbide-puntu batetik edo hainbat puntutatik, eta bertan bermatu beharko da Kontseiluaren 2008/633/JAI Erabakian, 2008ko ekainaren 23koan, Bisen Informazio Sistema (BIS) kontsultatzeko estatu kideek eta Europolek izendatutako agintariak duten sarbideari buruzkoan, terrorismo-delituak eta bestelako delitu larriak saihestu, antzeman eta ikertzeko <sup>(1)</sup> xedatutako sarbide-baldintza eta prozedurak betetzen direla. Estatu kideek hainbat sarbide-puntu nagusi izendatu ahal izango dituzte, era horretan konstituzio-esparrua eta esparru juridikoa betetzeko, beren antolakuntza eta administrazio-egitura islatzeko. Salbuespen gisa, presazkoa denean, sarbiderako puntu nagusiek idatziz, bitarte elektronikoz edo ahoz jaso ahal izango dituzte eskaerak, eta geroago egiaztatu, baldin eta sarbiderako baldintza guztiak betetzen badira soilik, horren barnean presazko salbuespena bada ere. Eskaera bideratu ondoren, haren egiaztapena atzerapenik gabe egingo da.

3. 2. paragrafoan aipatutako Erabakiaren arabera, BIS sistematik eskuratutako datuak ezingo dira hirugarren estatu baten edo nazioarteko erakunde baten esku jarri. Hala ere, presazko salbuespen kasuetan, datu horiek hirugarren estatu baten edo nazioarteko erakunde baten esku jarri ahal izango dira, betiere terrorismo-delituak eta bestelako delitu larriak saihestu eta antzemateko bada, eta Erabaki horretan xedatzen diren baldintzak betetzen badira. Estatu mailako legediak xedatutakoaren arabera, estatu kideek bermatu beharko dute transferentzia horien erregistroak gordetzen direla, eta datuak babesteko ardura duten agintari nazionalak hala eskatuta, horientzako eskuragarri jartzen direla ere. BIS sisteman informazioa sartu zuen estatu kide batek datuak transferitzen baditu, estatu kideko legediaren arabera izango da eragiketa hori.

4. Erregelamendu honek ez ditu eragotziko, 4. artikuluan xedatutakoari jarraiki, delituak saihestu, ikertu eta jazartzeko lanean, delituzko edozein jarduerari buruzko informazioa transmititzeko aplikagarria den legedia nazionalak ezarritako betebeharrak.

### *4. artikulua*

#### **Definizioak**

Erregelamendu honi dagokionez, honako definizio hauek zehazten dira:

1) «Bisa»:

a) «epe motzerako bisa», Schengengo Hitzarmeneko 11. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatian zehaztutakoa;

b) «igarotze-bisa», Schengengo Hitzarmeneko 11. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatian zehaztutakoa;

c) «aireportuetan igarotzeko bisa», Kontsulatuaren Instrukzio Bateratuko I. ataleko 2.1.1 puntuan zehaztutakoa;

d) «lurralde-balio mugatuko bisa», Schengengo Hitzarmeneko 11. artikuluko 2. paragrafoan eta 14. nahiz 16. artikuluetan zehaztutakoa;

e) «epe motzerako egonaldia egiteko bisaren balio bera duen epe luzerako behin-behineko bisa nazionala», Schengengo Hitzarmeneko 18. artikuluan zehaztutakoa.

2) «Bisa-etiketa itsasgarria». 1683/95 (EE) Erregelamenduan zehaztutako bisa-eredu uniformeak.

3) «Bisen esparruan agintari eskudunak». Estatu kide bakoitzean bisa-eskaerak aztertu eta horiei buruzko erabakiak hartzeko eskumena duten agintariak, baita bisak balioabatu, kendu edo luzatzeko eskumena duten agintariak, Kontseiluaren 415/2003 (EE) Erregelamenduak, 2003ko otsailaren 27koak, mugetan bisak igortzeari buruzkoak, baita iragaitzako ontzietan eman beharreko buruzkoak, mugetan bisak igortzeko izendatutako agintari eskudunak barne <sup>(2)</sup>.

4) «Eskaera-inprimakia». Kontsulatuaren Instrukzio Bateratuko 16. eranskineko bisa-eskaera uniformeak.

5) «Eskatzailea». Kontseiluaren 539/ 2001 (EE) Erregelamenduak, 2001eko martxoaren 15ekoak, Europar Batasuneko kanpoko mugak igarotzeko bisa behar duten hirugarren estatuaren herritarren zerrenda ezartzen duenak, eta betebeharrak horren barnean ez dauden hirugarren estatuaren herritarren zerrenda ezartzen duenak <sup>(2)</sup>, xedatutakoaren arabera, bisa bat eduki behar duen edozein pertsonak, bisa bat eskuratzeko eskaera egin badu.

6) «Taldekako kideak». Arrazoi juridikoak direla-eta, estatu kide batean derrigorrez batera sartu eta handik batera atera behar diren eskatzaileak.

---

(1) Ikus Egunkari Ofizial honetako 129. orrialdea.

(1) L 64 EO, 2003.3.7koa, 1. or.

(2) L 81 EO, 2001.3.21ekoa, 1. or. Azken aldiz, 1932/2006 [EE] Erregelamenduak (L 111 EO, 2006.12.30ekoa, 23.or.) aldatu zuen Erregelamendua.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- 7) «Bidaia-dokumentua». Kanpoko mugak igartzeko eta bertan bisa sartzeko balio duen pasaportearen edo beste edozein dokumentu baliokide.
- 8) «Estatu kide arduraduna». BIS sisteman datuak sartu dituen estatu kidea.
- 9) «Egiaztapena». Datu-serieak konparatzeko prozesua, nortasun aitortu baten balioa egiaztatzeko (bi lagin konparatuz egindako kontrola).
- 10) «Identifikazioa». Pertsona bat identifikatzeko prozesua, horretarako datu-baseko hainbat datu-serie konparatuz (hainbat lagin konparatuz egindako kontrola).
- 11) «Datu alfanumerikoak». Letra, digitu, karaktere berezi eta puntuazio-zeinuz adierazitako datuak.

### *5. artikulua*

#### **Datu-motak**

1. BIS sisteman datu-mota hauek bakarrik erregistratuko dira:

- a) Eskatzailearen eta eskatutako, igorritako, ukatutako, baliogabetutako edo luzatutako bisa-eskaeren datuak, hain zuzen ere 9. artikuluko 1. eta 4. paragrafoen artean zehaztutakoak, eta 10. eta 14. artikuluen bitartean aipatutakoak.
- b) 9. artikuluko 5. paragrafoan aipatutako argazkiak.
- c) 9. artikuluko 6. paragrafoan aipatutako hatz-marken aztarnak.
- d) Beste eskaeretik loturak, hain zuzen ere 8. artikuluko 3. eta 4. eta paragrafoetan aipatutakoak.

2. BIS azpiegituraren bidez transmititutako mezuak, hain zuzen ere 16. artikuluan, 24. artikuluko 2. paragrafoan, eta 25. artikuluko 2. paragrafoan aipatutakoak, ez dira BIS sisteman gordeko, betiere 34. artikuluan datu pertsonalei trataera emateko eragiketak erregistratzeko betebeharra eragotzi gabe.

### *6. artikulua*

#### **BISera sarbidea, datuak sartu, aldatu, ezabatu edo kontsultatzeko**

1. BIS sisteman sartzeko eskubidea edukiko dute, datuak sartu, aldatu, ezabatu edo kontsultatzeko (Erregelamendu honetako 5. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen dena), bisen esparruan eskumena duten erakundeetan horretarako baimena duten langileek bakarrik.
2. BIS sisteman datuak kontsultatzera sartzeko eskubidea izango dute, estatu kide bakoitzean 15. eta 22. artikuluen artean xedatutakoaren arabera, horretarako eskumena duten erakundeetan baimen berezia duten langileek bakarrik, arestian aipatutako helburuak lortzeko datu horiek beharrezkoak diren heinean, eta datu horiek aipatutako helburuen arabera ematen badira.
3. Estatu kide bakoitzak izendatuko ditu beren erakunde eskudunetan BIS sisteman datuak sartu, aldatu, ezabatu edo kontsultatzeko baimena duten langileak. Estatu kide bakoitzak agintari horien zerrenda, baita 41. artikuluko 4. paragrafoan aipatutakoa ere, bidaliko dio Batzordeari ahalik eta azkarren; baita zerrenda horretan egiten dituen aldaketak ere. Zerrenda horretan zehaztuko du erakunde bakoitzak BIS sistemako datuak zertarako erabil ditzakeen.
48. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera, BIS sistema martxan jarri eta hiru hilabeteko epean, Batzordeak behin betiko zerrenda argitaratuko du Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean. Zerrenda horretan aldaketak gertatzen badira, Batzordeak urtean behin argitaratuko du behin betiko zerrenda eguneratua.

### *7. artikulua*

#### **Printzipio orokorrak**

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Erregelamendu honen arabera, BIS sisteman sartzeko eskubidea duen erakunde eskudun orok bermatuko du BIS sistema erakunde horien funtzioak betetzeko beharrezkoa, egokia eta proportzionatua dela.
2. BIS sistema erabiltzean, erakunde eskudun orok ezingo ditu baztertu bisa-eskatzaile edo titularrak sexu, arraza edo etnia, erlijio edo sinismen, ezintasun, adin edo orientazio sexuala direla-eta, eta errespetatu egingo ditu eskatzailearen edo bisaren titularraren duintasuna nahiz osotasuna.

### II. KAPITULUA

#### **BISEN ESPARRUKO ERAKUNDE ESKUDUNEK DATUAK SARTU ETA ERABILTZEA**

##### *8. artikulua*

#### **Eskaera jasotzean, datuak sartzeko prozedurak**

1. Eskaera jasotzean, bisen esparruan eskumena duen erakundeak lehenbailehen sortuko du eskaera-espeditentea, eta BIS sisteman 9. artikuluan aipatutako datuak sartuko ditu, baldin eta eskatzaileak datu horiek derrigorrez aurkeztu behar baditu.
2. Eskaera-espeditentea sortzean, bisen esparruan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du, 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, beste estatu kide batek BIS sisteman eskatzaile berak egindako eskaera bat sartu duen.
3. Aldez aurretik beste eskaera bat egin bada, bisen esparruan eskumena duen erakundeak eskaera-espeditente berria lotuko dio eskatzaile beraren aurreko eskaera-espeditenteari.
4. Eskatzaileak taldean edo bere ezkontide eta seme-alabekin bidaiatzen badu, bisen esparruan eskumena duen erakundeak eskaera-espeditente bat sortuko du pertsona bakoitzeko, eta lotu egingo ditu batera bidaiatzen duten pertsona guztien espeditenteak.
5. Arrazoizko edo egitatezko arrazoiak direla-eta, datu jakin batzuk ematea derrigorrezkoa ez bada, datu horiek sartu beharreko eremuetan «ez da behar» jarriko da. Hatz-marken kasuan, 17. artikuluan xedatutakoari jarraiki, sistemak, arrazoi juridikoa dela-eta, bereizketa egiten utzi beharko du hatz-markak derrigorrez eman behar dituzten pertsonen eta hatz-markak aurkeztu ezin dituzten pertsonen artean. Lau urte igaro ondoren, funtzio hori iraungi egingo da, Batzordeak ez badu funtzio hori erabaki bidez berresten, 50. artikuluko 4. paragrafoan aipatutako ebaluazioan oinarrituta.

##### *9. artikulua*

#### **Eskaera aurkeztean sartu beharreko datuak**

Bisen esparruan eskumena duen erakundeak honako datu hauek sartuko ditu eskaera-espeditentean:

- 1) Espeditente-zenbakia.
- 2) Espeditentearen egoerari buruzko informazioa, bisa eskatu dela zehaztuz.
- 3) Eskaera zer erakundek aurkeztu duen, erakunde hori non dagoen, eta aurkeztutako eskaera hori beste estatu kide baten izenean egin den.
- 4) Eskaera-inprimakitik ateratako datu hauek:
  - a) abizenak, jaiotzetiko abizenak [aldez aurreko abizena(k)]; izena(k); sexua; jaioteguna, jaioterria eta jaiotza-estatua;
  - b) egungo nazionalitatea eta jaiotzetiko nazionalitatea;
  - c) bidaiari-dokumentu mota eta zenbakia, zer erakundek igorri zuen, eta dokumentuaren igorpen eta iraungitze-data;
  - d) eskaeraren lekua eta data;
  - e) eskatutako bisa-mota;
  - f) eskatzailea gonbidatu duen edo haren egonaldian mantenu-gastuak ordain ditzakeen pertsonari buruzko informazio zehatza;



*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- i) pertsona fisikoa bada, bere izen-abizenak eta helbidea
  - ii) enpresa edo erakundea bada, enpresa edo erakundearen izena, enpresako edo erakundeko harremanetarako pertsonaren izen-abizenak;
  - g) egonaldiako helbidea eta egonaldiaren iraupena;
  - h) bidaiaren arrazoia;
  - i) aurreikusitako etorrera eta irteera-datak;
  - j) sarrerarako lehen muga edo aurreikusitako ibilbidea;
  - k) bizilekua;
  - l) eskatzailearen lanpostua eta enplegatzailearen izena; ikasleen kasuan: ikastetxearen izena;
  - m) adingabekoen kasuan, eskatzailearen gurasoen izen-abizenak.
- 5) 1683/95 (EE) Erregelamenduak xedatutakoari jarraiki, eskatzailearen argazkia.
- 6) Kotsulatuen Instrukzio Bateratuko xedapenenekin bat etorriz, eskatzailearen hatz-markak.

*10. artikulua*

**Bisa egin ondoren gehitu beharreko datuak**

1. Bisa egiteko erabakia hartu ondoren, bisen esparruan eskumena duen erakundeak honako datu hauek gehituko ditu eskaera-espeditentean:

- a) espeditentearen egoerari buruzko informazioa, bisa egin dela zehaztuz;
- b) zer erakunde egin duen bisa, erakunde hori nongoa den zehaztuz, eta bisa hori beste estatu kide baten izenean egin duen zehaztuz;
- c) bisa egiteko erabakiaren data eta lekua;
- d) bisa-mota;
- e) bisaren etiketa itsasgarriaren zenbakia;
- f) Kotsulatuen Instrukzio Bateratuko xedapenei jarraiki, bisaren titularrak zein lurraldetan bidaiatu dezakeen;
- g) bisaren hasiera eta iraungipen-data;
- h) bisa hori baliozkoa den lurraldean zenbat sarrera baimentzen dituen;
- i) bisak baimendutako egonaldiaren iraupena;
- j) beharrezkoa bada, bisa beste orri batean egin dela zehaztuko da, Kontseiluaren 333/2002 (EE) Erregelamenduak, 2002ko otsailaren 18koak, inprimakia egiten duen estatu kidean aitortu gabeko bidaiari-dokumentu baten titularrei estatu kideek egindako bisa bat inprimaki-eredu uniforme batean ezartzeari buruzkoak <sup>(1)</sup>, xedatutakoari jarraiki.

2. Eskatzaile batek bisa egitea erabaki baino lehenago eskaera erretiratu edo eskaerarekin aurrera jarraitzen ez badu, bisen esparruan eskumena duen erakundeak, hain zuzen ere eskaera jaso duenak, adieraziko du eskaera-espeditentea arrazoi horiek direla-eta itxi dela, baita noiz itxi den ere.

---

(1) L 53 EO, 2002.2.23koa, 4. or.

*11. artikulua*

**Eskaera eteten bada, gehitu beharreko datuak**

Bisen esparruan eskumena duen erakunde batek beste estatu kide baten izenean jarduten badu eta bisa-eskaera eten behar badu, honako datu hauek gehitu beharko ditu eskaera-espeditentean:

- 1) espeditentearen egoerari buruzko informazioa, bisa-eskaeraren azterketa eten dela zehaztuz;
- 2) eskaeraren azterketa eten duen erakundearen izena eta lekua;
- 3) eskaeraren azterketa eten zen data eta lekua;
- 4) eskaera aztertzeko eskumena duen estatu kidea.

*12. artikulua*

**Bisa-eskaera ukatu ondoren gehitu beharreko datuak**

1. Bisa-eskaera ukatzeko erabakia hartu ondoren, bisen esparruan eskumena duen erakundeak, hain zuzen ere bisa ukatu zuenak, honako datu hauek gehituko ditu eskaera-espeditentean:

- a) espeditentearen egoerari buruzko informazioa, bisa-eskaera ukatu egin dela zehaztuz;
- b) bisa-eskaera ukatu duen erakundearen izena eta lekua;
- c) bisa-eskaera ukatzeko erabakiaren data eta lekua.

2. Eskaera-espeditentean hura ukatzeko egon den arrazoiak edo arrazoiak zehaztuko dira, eta hauetako bat edo bat baino gehiago izan daiteke. Eskatzaileak:

- a) ez du baliozko bidaia-dokumenturik;
- b) bidaia-dokumentu faltsu, faltsutu edo aldatua du;
- c) ez ditu bere egonaldiaren arrazoiak eta baldintzak justifikatu eta, bereziki, immigrazio ilegala gertatzeko arrisku handia dago, Kontsultatuen Instrukzio Bateratuko V. atalak xedatutakoaren arabera;
- d) sei hilabeteko epearen barnean, hiru hilabeteko epean bizi izan da estatu kideen lurraldean;
- e) egonaldiaren iraupenari eta modalitateari dagokienez, ez dauka bere burua mantentzeko baliabiderik, ezta jatorriko edo igarotzeko estatura itzultzeko baliabiderik ere;
- f) Schengengo Informazio Sistemari (SIS) edo erregistro nazionalen, ez-onartuen zerrendan dagoen pertsona bat da;
- g) Mehatxua da edozein estatu kideko ordena publikorako, barne-segurtasunerako edo nazioarteko harremanetarako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 562/2006 (EE) Erregelamenduak, pertsonak mugak igarotzeko Erkidego mailako Kodea ezartzen duenak (Schengen muga-kodea) <sup>(1)</sup>, 2. artikuluko 19. puntuan xedatzen duen zentzuan.

*13. artikulua*

**Bisa baliogabetu, erretiratu edo haren balio-denbora gutxitu ondoren gehitu beharreko datuak**

1. Bisa baliogabetu, erretiratu, edo haren balio-denbora gutxitzeko erabakia hartu ondoren, datu hauek gehitu beharko ditu eskaera-espeditentean bisen esparruan eskumena duen erakundeak, hain zuzen ere erabaki hori hartu duenak:

- a) espeditentearen egoerari buruzko informazioa, bisa baliogabetu, erretiratu edo haren balio-denbora gutxitu egin dela zehaztuz;

---

(1) L 105 EO, 2006.4.13koa, 1. or. Batzordearen 296/2008 [EE] Erregelamenduak (L 97 EO, 2008.4.9koa, 60. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- b) bisa baliogabetu, erretiratu edo haren balio-denbora gutxitu duen erakundearen izena eta lekua;
  - c) erabaki hori hartu zen data eta lekua;
  - d) bisaren balio-denboraren iraungitze-data berria, beharrezkoa bada;
  - e) bisa-etiketa itsasgarriaren zenbakia, balio-denbora gutxitzean etiketa itsasgarri bat behar bada.
2. Eskaera-espeditentean bisa baliogabetu, erretiratu edo haren balio-denbora gutxitzeko egon diren arrazoiak aipatuko dira; hauetako bat izan daiteke:
- a) bisa baliogabetu edo erretiratu bada, 12. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako arrazoi bat, edo bat baino gehiago;
  - b) bisaren balio-denbora gutxitzen bada, arrazoi hauetako bat edo bat baino gehiago izan daitezke:
    - i) bisaren titularra kanporatzea,
    - ii) aurreikusitako egonaldi-epean, bizirauteko baliabide egokirik ez edukitzea.

### *14. artikulua*

#### **Bisa luzatu ondoren gehitu beharreko datuak**

1. Bisa luzatzeko erabakia hartu ondoren, bisen esparruan eskumena duen erakundeak, hain zuzen ere bisa luzatu duenak, honako datu hauek gehituko ditu eskaera-espeditentean:
- a) espeditentearen egoerari buruzko informazioa, bisa luzatu egin dela zehaztuz;
  - b) bisa luzatu duen erakundearen izena eta lekua;
  - c) erabaki hori hartu zen data eta lekua;
  - d) bisa-etiketa itsasgarriaren zenbakia, bisa luzatzeak bisa berri bat egitea eskatzen bada;
  - e) luzatutako epearen hasiera eta iraungitze-data;
  - f) egonaldirako baimendutako luzapen-epea;
  - g) Kontsulatuaren Instrukzio Bateratuko xedapenei jarraiki, bisaren titularrak zein lurraldetan bidaiatu dezakeen;
  - h) luzatutako bisa-mota.
2. Eskaera-espeditentean hura luzatzeko egon den arrazoiak edo arrazoiak zehaztuko dira, eta hauetako bat edo bat baino gehiago izan daitezke:
- a) ezinbesteko kasua
  - b) arrazoi humanitarioak
  - c) arrazoi profesional larriak
  - d) arrazoi pertsonal larriak

### *15. artikulua*

#### **BIS sistema erabiltzea eskaerak aztertzeko**

1. Bisen esparruan eskumena duen erakundeak BIS sistema kontsultatuko du bisen eskaera eta erabakiak aztertzeko, horren barne, indarrean dauden xedapenei jarraiki, bisa bat baliogabetu, erretiratu, luzatu edo haren balio-epea gutxitzeko.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. 1. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, bisen esparruan eskumena duen erakundeak, bisak aztertu ahal izateko, bilaketak egin ditzake datu hauetako bat edo bat baino gehiago erabiliz:

- a) espediente-zenbakia;
- b) 9. artikuluko 4. paragrafoko a) idatz-zatian aipatutako datuak;
- c) 9. artikuluko 4. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutako bidaia-dokumentuaren datuak;
- d) 9. artikuluko 4. paragrafoko f) idatz-zatian aipatutako pertsonaren izen-abizenak eta helbidea, edo enpresaren izena eta helbidea;
- e) hatz-markak;
- f) bisa-etiketa itsasgarrien zenbakiak eta alde zurretik igorritako bisen igorpen-datak.

3. 2. paragrafoan aipatutako datu bat edo bat baino gehiagorekin bilaketa eginez gero, BIS sistemak adierazten badu eskatzailearen datuak bertan erregistratuta daudela, bisen esparruan eskumena duen erakundeak eskaera-espedientea edo eskaera-espedienteak kontsultatu ahal izango ditu, eta baita espediente horri lotutako beste eskaera-espedienteak ere, 8. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan xedatutakoari jarraiki, 1. paragrafoan aipatutako helburuetarako bakarrik.

### *16. artikulua*

#### **BIS sistema erabiltzea kontsultetan eta dokumentu-eskaeretan**

1. Bisen esparruan eskumena duten erakundeen artean kontsultak egiteari dagokionez, Schengengo Hitzarmeneko 17. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, kontsulta-eskaerak eta eskaera horien erantzunak transmitituko dira artikuluko honetako 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

2. Azterketa egiteko ardura duen estatu kideak BIS sistemara transmitituko du kontsulta-eskaera, bertan zehaztuz eskaera-zenbakia eta kontsultatu beharreko estatu kidea edo estatu kideak.

BIS sistemak zehaztutako estatu kideari edo estatu kideei transmitituko die eskaera.

Kontsultatutako estatu kideak edo estatu kideek BIS sistemara igorriko dituzte erantzunak, eta honek kontsulta-eskaera egindako estatuari bidaliko dio erantzuna.

3. 2. paragrafoan xedatutako prozedura aplikatu ahal izango da lurralde-balio mugatua duten bisei buruzko informazioa transmititzean, baita kontsultatuen arteko lankidetzari buruzko mezuetan ere; halaber, bisen esparruan eskumena duenari, bidaia-dokumentuen kopiak eta eskaera justifikatzeko balio duten bestelako dokumentuak bidaltzeko, baita dokumentu horien kopia elektronikoak bidaltzeko ere. Bisen esparruan eskumena duten erakundeek lehenbailehen erantzungo diote eskaera horri.

4. Artikulu honek xedatutakoaren arabera bidalitako datu pertsonalak erabiliko dira bisen esparruan eskumena duten erakunde nagusiei kontsulta egin eta kontsultatuen arteko lankidetzarako bakarrik.

### *17. artikulua*

#### **Txostenak eta estatistikak aurkezteko datuak erabiltzea**

Bisen esparruan eskumena duten erakundeek datu hauek kontsultatu ahal izango dituzte, txostenak eta estatistikak aurkezteko bakarrik, eta ezingo dute identifikatu datu horien banakako eskatzailea:

- 1) espedientearen egoerari buruzko informazioa;
- 2) bisen esparruan eskumena duen erakundea, haren kokapena barne;
- 3) eskatzailearen egungo nazionalitatea;
- 4) sarrerarako lehen muga;
- 5) bisaren eskaera-lekua eta data, edo bisaren erabakiaren data eta lekua;
- 6) eskatutako edo igorritako bisa-mota;

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- 7) bidaia-dokumentu mota;
- 8) bisari edo bisa-eskaerari buruz hartutako erabakiaren arrazoia;
- 9) bisen esparruan eskumena duen erakundea, hain zuzen ere bisa-eskaera ukatu duena, bai erakunde hori non dagoen eta ukapenaren data ere;
- 10) pertsona berak bisa bat eskatu badu esparru horretan eskumena duten hainbat erakundetan, erakunde horien izenak, lekuak eta ukapen-datak zehaztuz;
- 11) bidaiaren arrazoia;
- 12) 9. artikuluko 5. paragrafoko bigarren esaldian xedatutakoari jarraiki, 9. artikuluko 6. paragrafoan aipatutako datuak zein kasutan eman ezin izan diren;
- 13) 9. artikuluko 5. paragrafoko bigarren esaldian xedatutakoari jarraiki, 9. artikuluko 6. paragrafoan aipatutako datuak, arrazoi juridikoak direla-eta, zein kasutan ez dagoen eman beharrik;
- 14) 9. artikuluko 5. paragrafoko bigarren esaldian xedatutakoari jarraiki, 9. artikuluko 6. paragrafoan aipatutako datuak eman ez izanagatik, bisa-eskaera zein kasutan ukatu den.

### III. KAPITULUA

#### **BESTE ERAKUNDEEK DATUAK IKUSTEKO DUTEN ESKUBIDEA**

##### *18. artikulua*

#### **Datuak ikusteko eskubidea, kanpoko mugetako igarobideetan egiaztapenak egiteko**

1. Kanpoko Mugetako igarobideetan kontrolak egiteko ardura duten erakundeek, bisa-etiketa itsasgarriko zenbakia eta bisaren titularraren hatz-markak konbinatuz, datu horiek kontsultatu ahal izango dituzte, zertarako eta bisaren titularraren nortasuna, bisaren benetakotasuna edo Schengengo mugen Kodeko 5. artikuluan xedatutakoari jarraiki, estatu kideen lurraldean sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeke bakarrik, Schengengo mugen Kodeko 2. eta 3. paragrafoetan xedatutakoa kontuan hartuta.
2. BIS sistema abian jarri eta gehienez hiru urteko epean, kontsultak egin ahal izango dira bisa-etiketa itsasgarriko zenbakia bakarrik erabiliz. Eragiketak hasi ondoren, mugen kasuan, 49. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako prozeduraren arabera, hiru urteko epe hori gutxitu ahal izango da.
3. Beren hatz-markak erabili ezin diren bisa-titularraren kasuan, bisa-etiketa itsasgarriaren kontsulta bakarrik egingo da.
4. 1. paragrafoan aipatutako datuen bilaketa egiteak adierazten badu BIS sisteman bisa horren titularrari buruzko datuak erregistratuta daudela, mugak kontrolatzeko erakunde eskudunak honako datuak kontsultatu ahal izango ditu eskaera-espedientean eta, 8. artikuluko 4. paragrafoari jarraiki, baita espediente horri lotutako beste espedientean ere, 1. paragrafoan xedatutako helburuetarako bakarrik:
  - a) espedientearen egoerari buruzko informazioa eta eskaera-inprimakitik ateratako datuak, 9. artikuluko 2. eta 4. paragrafoetan xedatutakoari jarraiki;
  - b) argazkiak;
  - c) igorritako, baliogabetutako, erretiratutako edo balio-denbora luzatu edo gutxituta duten bisei buruzko datuak, 10., 13. eta 14. artikuluetan aipatutakoak.
5. Bisaren titularraren nortasuna egiaztatzea ezinezkoa bada, edo haren nortasunari, bidaia-dokumentuari edo bisaren benetakotasunari buruzko zalantzak badaude, datu horiek ikusi ahal izango dituzte horretarako bereziki baimendutako langileek, 20. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoari jarraiki.

##### *19. artikulua*

#### **Estatu kideek bisei buruzko egiaztapenak egiteko datuak ikusi ahal izatea**

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Bisaren titularraren nortasuna, bisaren benetakotasuna edo estatu kideetan sartu, egon edo bizitzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko bakarrik, Estatu kideen lurraldean sartu, egon edo bizitzeko baldintzak betetzen direla kontrolatzen duten erakundeek datuetan kontsulta egin ahal izango dute, bisaren titularraren bisa-etiketa itsasgarriko zenbakia eta hatz-markak erabiliz, edo bisa-etiketa itsasgarriko zenbakia bakarrik erabiliz.

Hatz-markak erabili ezin diren bisa-titularren kasuan, bisa-etiketa itsasgarriaren kontsulta bakarrik egingo da.

2. 1. paragrafoan aipatutako datuen bilaketa egiteak adierazten badu BIS sisteman erregistratuta daudela bisa horren titularrari buruzko datuak, mugak kontrolatzeko erakunde eskudunak honako datuak kontsultatu ahal izango ditu eskaera-espeditentean, eta 8. artikuluko 4. paragrafoari jarraiki, espeditente horri lotutako beste espeditentean, 1. paragrafoan xedatutako helburuetarako bakarrik:

a) espeditentearen egoerari buruzko informazioa eta eskaera-inprimakitik ateratako datuak, 9. artikuluko 2. eta 4. paragrafoetan xedatutakoari jarraiki;

b) argazkiak;

c) igorritako, baliogabetutako, erretiratutako edo balio-denbora luzatu edo gutxituta duten bisei buruzko datuak, 10., 13. eta 14. artikuluetan aipatutakoak.

3. Bisaren titularraren nortasuna egiaztatzea ezinezkoa bada, edo haren nortasunari, bidaia-dokumentuari edo bisaren benetakotasunari buruzko zalantzak badaude, datu horiek ikusi ahal izango dituzte horretarako bereziki baimendutako langileek, 20. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoari jarraiki.

### *20. artikulua*

#### **Datuak ikusteko eskubidea, identifikazio helburuetarako**

1. Estatu kideetan sartu, egon edo bizitzeko baldintza betetzen ez duen edo betetzeari utzi dion edozein pertsona identifikatzeko bakarrik, Schengengo muga Kodeari jarraiki, kanpo mugaketako igarobideak kontrolatzeko ardura duten erakundeek edo estatu kideek bilaketak egin ahal izango dituzte beren lurraldeetan sartu, egon edo bizitzeko baldintzak betetzen direla kontrolatzeko, pertsonaren hatz-markak erabiliz.

Pertsona horren hatz-markak erabili ezin badira, edo hatz-marken bidez egindako bilaketak ez badu emaitzarik izan, bilaketa egingo da 9. artikuluko 4. paragrafoko a) edo c) idatz- zatien bitartean xedatutako datuen arabera. Bilaketa hori 9. artikuluko 4. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen diren datuak konbinatuz ere egin daiteke.

2. 1. paragrafoan aipatutako datuen bilaketa egitean, BIS sistemak adierazten badu bisa horren titularrari buruzko datuak erregistratuta daudela, mugak kontrolatzeko erakunde eskudunak honako datu hauek kontsultatu ahal izango ditu eskaera-espeditentean, eta 8. artikuluko 3. eta 4. paragrafoei jarraiki, espeditente horri lotutako beste espeditenteak, 4. paragrafoan xedatutako helburuetarako bakarrik:

a) eskaera-zenbakia, espeditentearen egoerari buruzko informazioa eta eskaera aurkeztu zuen erakundea;

b) eskaera-inprimakitik ateratako datua, 9. artikuluko 4. paragrafoan aipatutakoa;

c) argazkiak;

d) igorritako, ukatutako, baliogabetutako, erretiratutako edo balio-denbora luzatu edo gutxitutako bisei buruzko datuak, edo etendako bisa-eskaerei buruzko datuak.

3. Pertsona bisa baten titularra bada, 18. edo 19. artikuluan xedatutakoaren arabera bakarrik sartuko dira erakunde eskudunak BIS sisteman.

### *21. artikulua*

#### **Datuak ikusteko eskubidea, asilo-eskaeren esparruan erantzukizunak zehazteko**

1. 343/2003 (EE) Erregelamenduaren 9. eta 21. artikuluetan xedatutakoari jarraiki, bilaketak egin ahal izango dira asilo-eskatzaileren hatz-markekin, asilo-eskaera bat aztertzeke estatu kide arduraduna zein den zehazteko bakarrik.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Pertsona horren hatz-markak erabili ezin badira, edo hatz-marken bidez egindako bilaketak ez badu emaitzarik izan, bilaketa egingo da 9. artikuluko 4. paragrafoko a) eta c) idatz-zatien bitartean xedatutako datuen arabera. Bilaketa hori 9. artikuluko 4. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen diren datuak konbinatuz ere egin daiteke.

2. 1. paragrafoan aipatutako datuekin bilaketa egitean, BIS sistemak egiaztatzen badu eskatzaileak asilo-eskaera egin baino lehen gehienez sei hilabete lehenagoko iraungipen-data duen bisa bat, edo asilo-eskaera egin baino sei hilabete lehenagoko iraungitze-data duen bisa luzatu bat duela, asiloaren esparruan eskumena duen erakundeak eskubidea izango du espediente horretako datu hauek ikusteko, eta 8. artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, g) idatz-zatian ezkontide eta seme-alabei buruz xedatutakoa betetz, betiere 1. paragrafoan aipatutako helburuetarako bakarrik:

a) eskaera-zenbakia, zer erakunde egin duen bisa, erakunde hori nongoa den eta bisa hori beste estatu kide baten izenean egin duen zehaztuz;

b) eskaera-inprimatik ateratako datua, 9. artikuluko 4. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan aipatutakoa;

c) bisa-mota;

d) bisaren balio-denbora;

e) egonaldiaren aurreikusitako iraupena;

f) argazkiak;

g) 9. artikuluko 4. paragrafoko a) eta b) idatz-zatiek xedatutakoari jarraiki, eskaera-espedienteari lotutako ezkontidearen eta seme-alaben espedienteak.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoari jarraiki, 343/2003 (EE) Erregelamenduko 21. artikuluko 6. paragrafoan aipatutako erakunde nazionalak bakarrik egingo dituzte kontsultak BIS sisteman.

### *22. artikulua*

#### **Datuak ikusteko eskubidea, asilo-eskaera aztertzean**

1. 343/2003 (EE) Erregelamenduaren 21. artikuluetan xedatutakoari jarraiki, asilo-eskatzaileen hatz-markekin bilaketak egin ahal izango dira, asilo-eskaera bat aztertzeko estatu kide arduraduna zein den zehazteko bakarrik.

Pertsona horren hatz-markak erabili ezin badira, edo hatz-marken bidez egindako bilaketak ez badu emaitzarik izan, bilaketa 9. artikuluko 4. paragrafoko a) eta c) idatz-zatien bitartean xedatutako datuen arabera egingo da. Bilaketa hori egin daiteke 6. artikuluko 4. paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen diren datuak konbinatuz ere.

2. 1. paragrafoan aipatutako datuen bilaketa egitean, BIS sistemak adierazten badu bisa bat igorrita dagoela, asiloaren gain erakunde eskudunak honako datuak kontsultatu ahal izango ditu eskaera-espedientearen; eta 8. artikuluko 3. eta 8. paragrafoei jarraiki, eta e) idatz-zatian aipatutako datuei dagokienez, espediente horri lotutako ezkontide eta seme-alaben espedienteak kontsultatu ahal izango ditu, 1. paragrafoan xedatutako helburuetarako bakarrik:

a) eskaera-espedientearen zenbakia;

b) eskaera-inprimatik ateratako datuak, 6. artikuluko 4. paragrafoko a), b) eta c) idatz-zatietan aipatutakoak;

c) argazkiak;

d) igorritako, baliogabetutako, erretiratutako edo balio-denbora luzatuta edo gutxituta duten beste bisei buruzko datuak, 10., 13. eta 14. artikuluetan aipatutakoak.

e) 6. artikuluko 4. paragrafoko a) eta b) idatz-zatiek xedatutakoari jarraiki, eskaera-espedienteari lotutako ezkontide eta seme-alaben espedienteak.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoari jarraiki, 343/2003 (EE) Erregelamenduko 21. artikuluko 6. paragrafoan aipatutako erakunde nazionalak bakarrik egingo dituzte kontsultak BIS sisteman.

#### IV. KAPITULUA

### **DATUAK GORDE ETA ALDATZEA**

#### *23. artikulua*

#### **Gordetako datuen kontserbazio-epea**

1. Eskaera-espeditentea BIS sisteman gordeko da, gehienez bost urtetan, 24. eta 25. artikuluek aipatutako ezabatzea eta 34. artikuluek aipatutako erregistroak eragotzi gabe. Epe hori egoera hauetan hasiko da:

- a) bisaren iraungitze-datan, baldin eta bisa igorri bada;
- b) bisaren iraungitze-data berrian, baldin eta bisa bat luzatu bada;
- c) BIS sisteman eskaera-espeditentea sortu zen datan, eskaera erretiratu, itxi edo eten bada;
- d) bisen esparruan eskumena duen erakundeak erabakia hartu zuen datan, baldin eta bisa ukatu, baliogabetu, gutxitu edo erretiratu bada.

2. 1. paragrafoan aipatutako epea iraungitzen denean, BIS sistemak automatikoki ezabatuko du eskaera-espeditentea, baita 8. artikuluko 3. eta 4. artikuluetan aipatutako loturak ere.

#### *24. artikulua*

#### **Datuak aldatzea**

1. Estatu kide arduradunak bakarrik izango du eskubidea BIS sistemara bidalitako datuak aldatzeko, horretarako datu horiek zuzenduz edo ezabatuz.
2. Estatu kide batek BISen jasotako datuak desegokiak direla edo BIS sisteman Erregelamendu honek xedatutakoaren aurka gordetzen direla frogatzen duten frogak baditu, estatu kide arduradunari jakinaraziko dio lehenbailehen. Mezu hori BIS azpiegituraren bitartez bidal daiteke.
3. Estatu kide arduradunak datu horiek egiaztatuko ditu eta, beharrezkoa bada, zuzendu edo ezabatu egingo ditu.

#### *25. artikulua*

#### **Datuak aldeztu aurretik ezabatzea**

1. 23. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako epea igaro baino lehen, eskatzaile batek estatu kide bateko nazionalitatea lortu badu, berehala ezabatuko ditu BIS sistematik eskaera-espeditentea sortu zuen estatu kideak 8. artikuluko 3. eta 4. paragrafoetan aipatutako eskaera-espeditentek eta loturak.
2. Estatu kide bakoitzak berehala jakinaraziko die estatu kide arduradunari eskatzaileak bere estatuko nazionalitatea lortu duela. Mezu hori BIS azpiegituraren bitartez bidal daiteke.
3. Auzitegi batek edo errekurso-organo batek bisa bat ukatu badu, bisa ukatu duen estatu kideak berehala ezabatuko ditu 12. artikuluan aipatzen diren datuak, bisa-eskaera ukatzeko erabakia behin betikoa den momentuan.

#### V. KAPITULUA

### **FUNTZIONAMENDUA ETA ARDURAK**

#### *26. artikulua*

#### **Kudeaketa eraginkorra**

1. Behin-behineko epe baten ondoren, kudeaketarako erakundea («Kudeaketa Erakundea»), Europar Batasuneko aurrekontuarekin finantzatutakoa, izango da BIS nagusiaren eta estatu mailako interfazeen kudeaketaren arduraduna. Kudeaketa Erakundeak, estatu



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

kideekin lankidetzan, kostu/onura analisisian oinarrituta, momentuoro bermatuko du BIS sistema nagusia eta estatu mailako interfazeak modu egokienean erabiliko direla.

2. Halaber, Kudeaketa Erakundearen ardura izango da BIS sistema nagusiaren eta estatu mailako interfazeen arteko komunikazio-azpiegiturarekin zerikusia duten funtzio hauek betetzea:

- a) ikuskapena;
- b) segurtasuna;
- c) estatu kideen eta hornitzailearen arteko harremanen koordinazioa.

3. Kudeaketa Erakundearen ardura izango da BIS sistema nagusiaren eta estatu mailako interfazeen arteko komunikazio-azpiegiturarekin zerikusia duten gainerako funtzio hauek betetzea:

- a) aurrekontua betetzeko funtzioak;
- b) erosketak eta berrikuntzak;
- c) kontratuekin zerikusia duten gaiak.

4. Kudeaketa Erakundeak bere ardurak hartu baino lehenago, hain zuzen ere behin-behineko epean, Batzordea izango da BIS sistemaren kudeaketaren arduraduna. Kontseiluaren 1605/2002 (EE, Euratom) Erregelamenduak, 2002ko ekainaren 25ekoak, Europar Erkidegoen aurrekontu orokorretan aplikagarria den Finantza Erregelamendua onartzen duenak <sup>(1)</sup>, xedatutakoari jarraiki, Batzordeak sektore publikoko estatu mailako organismoei esleitzen diezazkieke funtzio hori eta aurrekontua gauzatzeari buruzko funtzioak, bi estatu kide ezberdinetan.

5. 4. atalean aipatzen den sektore publikoko erakunde nazional bakoitza hautatzeko, honako hautapen-baldintzak bete beharko ditu erakunde horrek:

- a) Eskarmentu handia duela frogatu beharko du magnitude handiko informazio-sistemak maneiatzen.
- b) Trebetasun handia eduki beharko du magnitude handiko informazio-sistemen zerbitzu eta segurtasun-premiei buruz.
- c) BIS bezalako sistema batek behar duen nazioarteko lankidetzara esparruan lan egiteko moduko eskarmentudun langile nahikoa eduki beharko ditu, eta langile horiek trebetasun profesional eta ezagutza linguistikoa eduki beharko dute horrelako lana egiteko.
- d) Neurritan egindako instalazio-azpiegitura segurua izan beharko du, magnitude handiko sistema informatikoak etengabe funtzionatzen duela bermatzeko.
- e) Administrazio-inguruneak bere funtzioak modu egokian egiteko modukoa izan beharko du, edozein interes-gatazka ekiditeko.

6. 4. paragrafoan aipatzen diren funtzioak eskuordetu baino lehen, Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinaraziko die eskuordetze hori: haren irismen zehatza azalduko du, eta zein organismori esleitu dizkien funtzio horiek.

7. Trantsizio-epean, Batzordeak 4. atalaren arabera eskualdatzen baditu bere erantzukizunak, erantzukizun-eskualdaketa horrek bermatuko du Tratatuan ezarritako erakunde-sistemak xedatutako mugak betetzen dituela. Hain zuzen ere, eskualdaketa horrek bermatuko du Erkidegoko zuzenbidean aurreikusitako kontrol-mekanismo eraginkorrei ez diela erasaten, berdin dio hori Justizia Auzitegiaren, Kontuen Auzitegiaren edo Datuak Babesteko Europako Ikuskaritzaren esku egon.

8. BIS sistemaren kudeaketak bermatu beharko du eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan sistema horrek Erregelamendu honetan aipatutako funtzioak betetzen direla eta, bereziki, mantentze-lanak eta garapen teknikoak ezarri beharko ditu sistema horrek beharrezko kalitate-mailarekin funtzionatzen duela bermatzeko, hain zuzen ere kontsulatuetakoko bulegoek datu-base orokorrean kontsultak ahalik eta azkarren egiteko.

9. 259/68 (EEE, Euratom, IAEE) Erregelamenduak <sup>(2)</sup> ezarritako Europar Erkidegoetako funtzionarioen estatutuko 17. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe, Kudeaketa Erakundeak sekretu profesionalari eta konfidentziasunari buruzko beste betebeharrei

---

(1) L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or. Azken aldiz, 1525/2007 [EE] Erregelamenduak (L 343 EO, 2007.12.27koa, 9.or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(2) L 56 EO, 1968.3.4koa, 1. or. Azken aldiz, 337/2007 [EE, Euratom]Erregelamenduak (L 90 EO, 2007.3.30ekoa, 1.or.) aldatu zuen Erregelamendua.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

buruzko arauak aplikatuko dizkie BIS sistemako datuekin lan egin behar duten langileei. Betebehar hori aplikagarria izango da langileek bertan lan egiteari uzten diotenean nahiz jarduera horiek egiten aaitzen dutenean.

### *27. artikulua*

#### **Bisa Informazio Sistema nagusiaren kokapena**

BIS nagusiaren egoitzaren ardura izango da ikuskapen teknikoa eta kudeaketa egitea. Zerbitzu hori Estrasburgon (Frantzia) dago. BIS sistemaren segurtasun-kopia bat ere egongo da Sankt Johann im Pongau (Austria), sistema nagusiak huts egiten badu BIS nagusiaren funtzio guztiak betetzeko.

### *28. artikulua*

#### **Harremana estatu mailako sistemekin**

1. BIS sistema nagusia lotuta egongo da estatu kideetako estatu mailako sistemei, estatu kide bakoitzeko estatu mailako interfazeen bidez.
2. Estatu kide bakoitzak bere herrialdeko erakunde bat izendatuko du 6. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan aipatzen diren erakunde eskudunak BIS sisteman sartzeko, eta estatuko interfazearekin konektatuko du estatu mailako erakunde hori.
3. Estatu kideek datuen tratamendurako prozedura automatizatuak aplikatuko dituzte.
4. Estatu kideen ardura izango da:
  - a) 2004/512/EE Erabakiko 2. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera, estatu mailako sistema garatu edo hura BIS sistemara egokitzea;
  - b) estatu mailako sistema antolatu, kudeatu, martxan eduki eta mantentzea;
  - c) estatu mailako erakunde eskudunetako langile baimenduak BIS sisteman sartzeko kudeaketa eta xedapen egokiak ezartzea, betiere Erregelamendu honen arabera; eta, halaber, langile baimendu horien eta haien prestakuntza profesionali buruzko zerrenda bat osatu eta aldi behin eguneratzea;
  - d) estatu mailako sistemen kostuak eta horiek estatu mailako interfazera konektatzeko kostuak ordaintzea, estatu mailako interfazearen eta sistema nazionalaren arteko komunikaziorako azpiegituraren funtzionamendu eta inbertsioak sortutakoak barne.
5. BIS sisteman gordetako datuei tratamendua emateko baimena jaso baino lehen, beharrezko prestakuntza jasoko dute BIS sisteman sartzeko eskubidea duten erakundeetako langileek, segurtasun-arauen eta datuen babesaren inguruan. Horrez gain, esparru horretako delitu eta zigor penalak ere jakinaraziko zaizkie.

### *29. artikulua*

#### **Datuen erabilerari buruzko ardurak**

1. Estatu kideek datuak berme juridiko egokiarekin tratatuko direla bermatu beharko dute, batez ere, BIS sistemako datuak horretarako baimena duten langileek bakarrik erabiliko dituztela, betiere Erregelamendu honek xedatutako lanak egiteko. Estatu kide arduradun bakoitzak hau bermatu beharko du:
  - a) bildutako datuak legalak direla;
  - b) BIS sistemara bidalitako datuak legalak direla;
  - c) BIS sistemara bidaltzen diren datuak zehatzak eta eguneratuak direla.
2. Kudeaketa Erakundeak bermatu beharko du BIS sistemak Erregelamendu honen eta bere aplikazio arauen arabera funtzionatzen duela, 45. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen denari jarraiki. Bereziki, Kudeaketa Erakundeak:
  - a) beharrezko neurriak hartuko ditu BIS nagusian, BIS nagusiaren eta estatu mailako interfazeen arteko komunikazio-azpiegituren segurtasuna bermatzeko, estatu kide bakoitzaren ardurak eragotzi gabe;

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

b) BIS sistemako datuetara sarbidea horretarako baimendutako langileek bakarrik dutela bermatu beharko du, betiere Erregelamendu honetan Kudeaketa Erakundeari esleitutako funtzioak betez.

3. Kudeaketa Erakundeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari jakinaraziko dizkie 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera hartutako neurriak.

### *30. artikulua*

#### **BIS sistemako datuen erregistroa, estatu mailako artxiboetan**

1. BIS sistematik ateratako datuak estatu mailako artxiboetan gorde ahal izango dira beharrezkoa den kasuetan eta kasu zehatzetan bakarrik, betiere BIS sistemaren helburua betez eta dagozkion lege-xedapenak betez, datuen babesari buruzkoak barne, eta betiere kasu jakin horretarako beharrezkoa den epean bakarrik.

2. 1. paragrafoak ez du eragozten BIS sisteman datuak sartu dituen estatu kide berak bere herrialdeko artxiboetan datu hori erregistratzeko eskubidea.

3. Datuak 1. eta 2. paragrafoen arabera erabiltzen ez badira, ulertuko da estatu kide bakoitzeko legedia urratzen dela.

### *31. artikulua*

#### **Datuak hirugarren estatuei edo nazioarteko erakundeei transmititzea**

1. Erregelamendu honek xedatutakoaren arabera, BIS sistemako datuak ez dira jarriko hirugarren estatuen edo nazioarteko erakundeen esku.

2. 1. paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, 9. artikuluko 4. paragrafoko a), b), c), k) eta m) idatz-zatietan aipatutako datuak eranskinean aipatutako hirugarren estatu baten edo nazioarteko erakunde baten esku jarri ahal izango dira kasu zehatzetan, hirugarren estatuetakoa herritarren nortasuna frogatzeko edo itzulketak egiteko, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

a) Batzordeak, 95/46/EE Zuzentarauko 25. artikuluko 6. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, hirugarren estatu horretako datu pertsonalen babesari buruzko erabaki bat hartzen badu, Erkidegoaren eta hirugarren estatu horren artean berriz onartzeko hitzarmen bat indarrean badago; edo 95/46/EE Zuzentarauko 26. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatiko xedapenak aplikatzen badira.

b) Hirugarren estatuak edo nazioarteko erakundeak erabaki bat badu datu horiek bidalitako helbururako bakarrik erabiliko direla adierazten duena.

c) Datuen igorpena Erkidegoko legediko xedapenak betez egiten bada, bereziki berriz onartzeari buruzko hitzarmenen kasuan, eta datuak transmititu dituen estatu kidearen herrialdeko zuzenbidearen arabera bada, segurtasunaren eta datuen babesari buruzko xedapen juridikoak barne.

d) Datuak BIS sisteman sartu dituen estatuak edo estatuak horretarako baimena ematen badute.

3. Datu pertsonalak hirugarren estatuetakoa edo nazioarteko erakundeetara transmititzean ez dira urratuko errefuxiatuen eta nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen eskubideak, bereziki ez-kanporatzeko printzipioaren ingurukoak.

### *32. artikulua*

#### **Datuen segurtasuna**

1. Estatu kide arduradunak datuen segurtasuna bermatuko du estatuko interfazera bidali baino lehen, baita igorpena egin eta gero ere. Estatu kide bakoitzak bermatuko du BIS sistematik jasotzen dituen datuen segurtasuna.

2. Estatu kideek, beren estatuko sistemari dagokionez, beharrezko neurriak eta segurtasun-plan bat ere ezarri beharko dituzte, hau lortzeko:

a) datuak fisikoki babesteko, besteak beste funtsezko azpiegiturak babesteko larrialdi-planak osatuz;

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

- b) horretarako baimenik ez duten pertsonak estatu kideak BIS sistemarekin eragiketak egiten dituzten instalazioetan ez sartzeko (instalazioetan sartzeko kontrolak ezarri);
  - c) baimenik gabeko pertsona batek datu-euskarriak ez irakurtzeko, kopiatzeko, aldatzeko edo ateratzeko (datu-euskarrien kontrola ezarri);
  - d) datuak baimenik gabe ez aldatzeko, hots, gordetako datu pertsonalak baimenik gabe ez aldatu edo ezabatzeko (biltegiatzean kontrolak ezarri);
  - e) BISeko datuak baimenik gabe ez tratatzeko, eta BISeko datuetan baimenik gabe daturik ez aldatu edo ezabatzeko (datuak sartzeko kontrolak ezarri);
  - f) BIS sisteman sartzeko baimena duten pertsonak beren baimenaren arabera datuak bakarrik ikusten dituztela bermatzeko; horretarako erabiltzaileen banakako identifikazioak eta sarbiderako modu bereizi eta konfidentzialak ezarri (datuetara sartzeko kontrolak ezarri);
  - g) BIS sisteman sartzeko eskubidea duten erakunde guztiek, datu horiek ikusi, erregistratu, eguneratu, ezabatu eta bilatzeko baimena duten pertsonen funtzio eta arduren profilak zehazteko, eta profil horiek 41. artikuluan aipatutako ikuskapen zerbitzu nazionalen esku jartzeko (langileen profilak ezarri);
  - h) datuak komunikatzeko ekipoarekin datuak zer organismori transmititu dakizkiokeen egiaztatu eta zehaztu daitekeela bermatzeko (komunikaziorako kontrola ezarri);
  - i) BIS sisteman zer datu tratatu diren egiaztatu eta zehazteko aukera bermatzeko, bai noiz, nork eta zertarako (datuen erregistro-kontrola ezarri);
  - j) datu pertsonalak BISera edo BIsetik bidaltzean, horiek baimenik gabe irakurri, kopiatu, aldatu edo ezabatzea ekiditeko, baita datuak euskarrietan garraiatzen direnean hori ez gertatzeko ere; horretarako, kriptografia-teknikak erabiliko dira (garraioan kontrola ezarri);
  - k) paragrafo honetan aipatutako segurtasun-neurrien eraginkortasuna kontrolatzeko, eta Erregelamendu hau betetzen dela bermatzeko barne-antolaketa buruzko neurriak hartzeko (barne-kontrola ezarri).
3. Kudeaketa Erakundeak beharrezko neurriak hartuko ditu 2. paragrafoan BIS sistemaren funtzionamenduaren inguruan zehaztutako helburuak lortzeko; horren barne, segurtasun-plana ezarri beharko du.

### *33. artikulua*

#### **Erantzukizuna**

1. Erregelamendu honek xedatutakoaren aurkako egintza baten ondorioz, datu pertsonalak legez kanpo erabiltzeagatik kalteak izan dituen edozein pertsona edo estatu kide kaltea sortu duen estatu kidearen eskutik kalte-ordain bat jasotzeko eskubidea izango du. Estatu kide horrek frogatzen badu kalte hori sortu zuen gertakaria bere erantzukizunetik at dagoela, ez du auzi horretan erantzukizunik izango.
2. Estatu kide batek Erregelamendu honetako betebeharrak urratu, eta horrek BIS sisteman kalteak sortzen baditu, estatu kide hori izango da kalteen erantzule, baldin eta Kudeaketa Erakundeak edo beste estatu kide batek beharrezko neurriak ez badu hartu kalte hori ez gertatzeko edo gutxitzeko.
3. 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako kalteak direla-eta, auzitara eramandako estatu kidearen zuzenbide nazionalaren xedapenek arautuko dituzte estatu kide bati egindako erreklamazioak.

### *34. artikulua*

#### **Erregistroak**

1. Estatu kideek eta Kudeaketa Erakundeak gordeko dituzte BIS datuei tratamendua emateko eragiketa guztien erregistroak. Erregistro horietan datuak ikusteko arrazoiak azaldu beharko dira, hain zuzen ere 6. artikuluko 1. paragrafoko eta 15. eta 22. artikuluen bitartean xedatutakoak, data eta ordua eta 9. eta 14. artikuluen bitartean xedatutakoaren arabera datuak; 15. artikuluko 2. paragrafoko, 17. paragrafoko, 18. paragrafoko 1. eta 3. paragrafoen arteko, 19. artikuluko 1. paragrafoko, 20. artikuluko 1. paragrafoko, 21. artikuluko 1. paragrafoko eta 22. artikuluko 1. paragrafoko datuak, baita datuak sartu edo kendu

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

dituen erakundearen izena ere. Gainera, estatu kide bakoitzak izango du datuak sartu edo kentzeko baimena duten langileen erregistro bat ere.

2. Horrelako erregistroak erabil daitezke bakarrik datuei tratamendua ematean datuak behar bezala babesten diren kontrolatzeko, baita datu horien segurtasuna bermatzeko ere. Erregistroak baimenik gabe bertan ez sartzeko neurri egokiekin babestuko dira, eta 23. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den kontserbazio-epea iraungitzen denetik urte betera ezabatu egingo dira, baldin eta abian jarritako prozeduretarako beharrezkoak ez badira.

### *35. artikulua*

#### **Autokontrola**

Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte BIS sisteman datuak ikusteko baimena duten erakunde guztiek Erregelamendu honetan xedatutakoa betetzeko eta estatuarekin lan egiteko eta, beharrezkoa balitz, kontrolerako erakunde nazionalarekin batera lan egin beharko dute.

### *36. artikulua*

#### **Zehapenak**

Estatu kideek BIS sisteman erregistratuko datuak modu ezegokian erabiltzen badira, zehapenak ezartzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte, horien barne, estatu bakoitzeko zuzenbide nazionalaren araberako administrazio-zigorrek eta zigor penalak. Zigor horiek guztiak eraginkorrak, proportzionatuak eta disuasorioak izan beharko dira.

## VI. KAPITULUA

### **DATUEN BABESARI BURUZKO ESKUBIDEA ETA IKUSKAPENA**

### *37. artikulua*

#### **Informazio-eskubidea**

1. Estatu kide arduradunak honako informazio hau emango die eskatzaileei eta 9. artikuluko 4. paragrafoko f) idatz-zatian aipatutako pertsonari:

a) kontrola egiteko erakunde arduradunaren izena, hain zuzen ere 41. artikuluko 4. paragrafoan aipatutakoa, haren harremanetarako datuak barne;

b) BISEko datuak zer helburutarako erabiliko diren;

c) datuen hartzaileen mailak, 3. artikuluan aipatutako erakunde nazionalak barne;

d) datuen kontserbazio-epea;

e) eskaera aztertzekeo datuak derrigorrez biltzea;

f) pertsona horiekin zerikusia duten datuak ikusteko eskubidea dutela, baita datu zehaztugabeek erasaten badiete horiek zuzentzea edo ezabatzea eskatzeko eskubidea dutela ere; horren barne, eskubide horiek gauzatzeko prozedurei eta erakunde nazionalen harremanetarako datuei, 41. artikuluko 1. paragrafoan aipatutakoei, buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dutela ere, datu pertsonalen babesari buruzko erreklamazioak egiteko.

2. 1. paragrafoan aipatutako informazioa idatziz jakinaraziko zaio eskatzaileari, eskaera-inprimakiko datuak, argazkia eta hatz-markak bildu ondoren, hain zuzen ere 9. artikuluko 4, 5 eta 6. paragrafoetan aipatutakoak.

3. 1. paragrafoan aipatutako informazioa emango zaie 9. artikuluko 4. paragrafoko f) idatz-zatian aipatutako pertsonari, eta pertsona horiek sinatu beharko dute gonbidapen-adierazpenetan, erantzukizun- nahiz ostatu-hartzeetan. Pertsona horiek sinatutako adierazpenik ez badago, 95/46/EE Zuzentarauko 11. artikulua xedatutakoaren arabera emango da informazioa.

### *38. artikulua*

#### **Datuak ikusi, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea**

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. 95/46/EE Zuzentarauko 12. artikuluko a) idatz-zatian xedatutakoari jarraiki, datuak jakinarazteko betebeharrak eragotzi gabe, edozein pertsonak izango du eskubidea BIS sisteman hari buruzko zein datu dauden gordeta jakiteko, baita datu horiek BIS sistemara bidali dituen estatu kideari buruzko informazioa izateko ere. Datu horiek ikusteko baimena estatu kide batek bakarrik eman ahal izango du. Estatu kide bakoitzak datuak ikusteko eskaera guztiak erregistratuko ditu.
2. Edozein pertsonak eskubidea izango du datu zehaztugabeak zehazteko, edo modu ilegalean berari buruz eskuratutako datuak ezabatzeko. Estatu kide arduradunak lehenbailehen zuzendu edo ezabatuko ditu datu horiek, bere lege, erregelamendu eta prozeduren arabera.
3. 2. paragrafoan aipatutako eskaera estatu kide erantzulea ez den beste estatu kide batean aurkezten bada, eskaera jaso duten estatu kideko agintariak 14 eguneko epean jarri beharko dira harremanetan estatu kide arduradunarekin. Estatu kide arduradunak bermatu beharko du datuak zehatzak direla eta BIS sisteman modu legalean tratatzen direla, hilabete bateko epean.
4. BIS sisteman sartutako datuak zehaztugabeak badira edo ilegalki erregistratu badira, estatu kide arduradunak 24. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera zuzendu edo ezabatuko ditu datuak. Estatu kideak lehenbailehen eta idatziz jakinaraziko dio pertsona interesatuari, datu horiek zuzendu edo ezabatzeko beharrezko neurriak hartu dituela.
5. Estatu kide arduradunak ez badu onartzen BIS sisteman sartutako datuak zehaztugabeak direla edo ilegalki eskuratu direla, hori guztia pertsona interesatuari jakinarazi beharko dio, lehenbailehen eta idatziz, bertan datu horiek ez zuzentzeko edo ezabatzeko dauden arrazoiak aipatuz.
6. Estatu kide arduradunak pertsona interesatuari azaldu beharko dio zer neurri har ditzakeen, emandako azalpena onartzen ez badu. Horren barne, ekintza judizial bat nola jartzen den azalduko zaio, baita estatu kide horren erakunde eta organo jurisdikzional eskudunei erreklamazio bat nola aurkezten zaion ere. Halaber, besteak beste, 41. artikuluko 1. paragrafoan xedatutako kontrol-erakundeen zer laguntza jaso dezakeen ere zehaztuko zaio, betiere estatu kideko lege, erregelamendu eta prozedurak betez.

### *39. artikulua*

#### **Datuen babeserako eskubideak bermatzeko lankidetzak**

1. Estatu kideek elkarren artean lan egingo dute 38. artikuluko 2, 3 eta 4. paragrafoetan xedatutako eskubideak betetzen direla bermatzeko.
2. Estatu kide bakoitzean, alde zuzenetik eskatzen bada, kontrolerako estatu mailako erakundeak laguntza eta aholkularitza emango du, pertsona batek hari buruzko datuak zuzendu edo ezabatzeko duen eskubidea gauzatzeko.
3. Horretarako elkarlanean jardungo dute datuak igorri zituen estatu kide arduraduneko erakunde nazionalak eta eskaera egin zuten estatu kideetako kontrolerako erakundeak.

### *40. artikulua*

#### **Errekurtso-bideak**

1. Estatu kide bakoitzean, pertsona bati ukatzen bazaio bere datuak zuzendu edo ezabatzeko eskubidea, 38. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoa, eskubidea izango du eskubide hori ukatu dion estatu kideko erakunde edo organo jurisdikzionaletan erreklamazio bat jarri edo ekintza judizial bat abian jartzeko.
2. Estatu mailako kontrol-erakundeen laguntza mantenduko da prozedura osoan zehar, 39. artikuluko 2. paragrafoan aipatutakoa.

### *41. artikulua*

#### **Kontrola kontrolerako estatu mailako erakundearen eskutik**

1. Estatu kide bakoitzak izendatutako erakundeak, hain zuzen ere 95/46/CE Zuzentarauko 28. artikuluko eskumenekin izendatutakoak (estatu mailako kontrolerako erakundeak), bermatuko du edozein estatu kidek 5. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako datu pertsonalak modu legalean tratatzen dituela, eta BIS sistemara edo BIS sistematik modu egokian transmititzen direla.
2. Estatu mailako kontrol erakundeak honakoa bermatu beharko du: gutxienez lau urtez behin, estatu mailako sisteman datuei tratamendua emateko eragiketen ikuskapen bat egiten dela, betiere nazioarteko ikuskaritza arauak betez.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

3. Erregelamendu honek xedatutakoaren arabera, estatu kideek bermatu beharko dute estatu-mailako kontrol-erakundeek bete beharreko funtzioak betetzeko adinako baliabideak dituztela.

4. BIS sisteman datu pertsonalei tratamendua emateari dagokionez, estatu kide bakoitzak kontrolerako erakunde arduraduna izendatuko du 95/46/CE Zuzentarauko 2. artikuluko d) idatz-zatian xedatutakoari jarraiki, eta erakunde horren esku egongo da estatu kideak tratatutako datuei buruzko erantzukizun nagusia. Estatu kide bakoitzak Batzordeari jakinarazi beharko dio erakunde horren izena.

5. Estatu kide bakoitzak estatu mailako kontrol-erakundeek eskatutako edozein informazio eman beharko diete, bereziki 28. artikuluan eta 29. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako eragiketei buruzkoa. Horrez gain, 28. artikuluko 4. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutako zerrendak ikusten utziko diete, baita 34. artikuluan xedatutako erregistroak ere. Bestalde, beren lokaletan sartzen utzi beharko diete beti.

### *42. artikulua*

#### **Datuen Babeserako Europako Ikuskatzailearen esku dagoen kontrola**

1. Datuak Babesteko Europako Ikuskaritzak kontrolatuko du Kudeaketa Erakundeek datu pertsonalei trataera emateko egindako jarduerak Erregelamendu honen arabekoak direla. Beraz, 45/2001(EE) Erregelamenduko 46. eta 47. artikuluetako betebeharrak eta eskumenak aplikagarriak izango dira.

2. Datuak Babesteko Europako Ikuskaritzak bermatuko du, gutxienez lau urtez behin kontu-ikuskaritza bat egingo dela kudeaketa-erakundeak datu pertsonalei emandako trataeraren jardueri buruz, betiere nazioarteko kontu-ikuskaritzak egiteko arauak jarraiki. Kontu-ikuskaritzako txostena Europako Parlamentura, Kontseilura, Kudeaketa Erakundera, Batzordera eta estatu-erakundeetara bidaliko da. Txostena hartu baino lehen, Kudeaketa Erakundeari aukera eman behar zaio iruzkinak egiteko.

3. Kudeaketa Erakundeak emango du Datuen Babeserako Europako Ikuskaritzak eskatutako informazioa; azken horrek 28. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako dokumentu eta erregistro guztiak ikusteko eskubidea izango du, baita Kudeaketa Erakundearen lokaletara nahi duenean sartzeko ere.

### *43. artikulua*

#### **Lankidetzaren estatu-erakundearen eta Datuak Babesteko Europako Ikuskaritzaren artean**

1. Estatu mailako kontrol-erakundeek eta Datuen Babeserako Europako Ikuskaritzak, bakoitzak bere eskumen-eremuan, elkarrekin jardungo dute modu aktiboan, betiere beren arduren barne; eta BIS sistemen eta sistema nazionalen arteko ikuskapen koordinatua egingo dute.

2. Bakoitzak bere eskumen-esparruaren barne, dagokion informazioa trukatu dute, ikuskapenak egiteko elkarri lagunduko diote, Erregelamendu honetako zailtasunak interpretatu eta Erregelamendu hau aplikatu dute, interesatuen eskubideak gauzatzeko edo kontrol bereizita gauzatzeko sortzen diren arazoak aztertuko dituzte, arazo komunak konpontzeko proposamen bateratuak osatuko dituzte eta, behar den heinean, datuen babeserako esparruko eskubideen ezagutza sustatuko dute.

3. Horretarako, gutxienez urtean bitan bilduko dira estatu-erakundeetako arduradunak eta Datuak Babesteko Europako Ikuskaria. Datuak Babesteko Europako Ikuskaritzaren esku egongo dira bileren gastuak eta antolaketa. Lehen bilera barne-erregelamendua onartuko da. Bi erakundeak lan-metodoak garatzen joango dira, premien arabera.

4. Bi urtez behin, egindako jardueren txosten bat bidaliko da Europako Parlamentura, Kontseilura, Batzordera eta Kudeaketa Erakundera. Txosten horretan estatu kide bakoitzari buruzko kapitulu bat egongo da, estatu kide horretako estatu mailako kontrol-erakundeak idatzitakoa.

### *44. artikulua*

#### **Datuak trantsizio-epan babestea**

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Behin-behineko epean, Erregelamendu honetako 26. artikuluko 4. paragrafoak xedatutakoaren arabera, Batzordeak bere eskumenak beste organismo baten edo batzuen esku jartzen baditu, Datuen Babeserako Europako Ikuskariak bermatu beharko du bere funtzioak betetzeko aukera eta eskubidea duela, eta horren barne, lekuan bertan egin beharreko egiaztapenak egiteko eskubidea, eta 45/2001 (EE) Erregelamenduko 47. artikulua xedatutako bestelako eskumenak gauzatzeko eskubidea ere.

### VII. KAPITULUA

#### AZKEN XEDAPENAK

##### *45. artikulua*

#### **Aplikazioa Batzordearen eskutik**

1. Batzordeak lehenbailehen ezarri beharko ditu BIS sistema nagusia, estatu kide bakoitzeko estatu mailako interfazeak eta BIS nagusiaren eta estatu mailako interfazeen arteko komunikazio-azpiegitura, Erregelamendu hau indarrean sartu ondoren. Horren barne, 5. artikuluko 1. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutako datu biometrikoei buruzko funtzioak gauzatzeko azpiegiturak ezarri beharko ditu.

2. 49. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako prozeduren arabera ezarriko dira BIS sistema nagusia, estatu kide bakoitzeko estatu mailako interfazeak eta BIS nagusiaren eta estatu mailako interfazeen arteko komunikazio-azpiegitura teknikoki aplikatzeko beharrezko neurriak; bereziki:

- a) datuak eta elkarren artean lortutako eskaerak sartzeko, 8. artikulua xedatutakoari jarraiki;
- b) datuak ikusteko, 15. artikulua eta 17. eta 22. artikuluen bitartean xedatutakoari jarraiki;
- c) datuak aldatu, ezabatu edo aldeztu aurretik ezabatzeko, 23. eta 25. artikuluen artean xedatutakoari jarraiki;
- d) erregistroak gorde eta horiek ikusteko, 34. artikuluan xedatutakoari jarraiki;
- e) kontsultarako mekanismo eta prozeduretarako, 16. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

##### *46. artikulua*

#### **Schengen kontsulta-sareko funtzionalitate teknikoak integratzea**

16. artikuluan aipatutako kontsulta-mekanismoak Schengen kontsulta-sarea ordeztuko du, 49. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako prozeduraren arabera zehaztutako egunetik aurrera; baldin eta Erregelamendu hau indarrean sartzen den egunean sare hori erabiltzen duten estatu kide guztiek BIS sistemako xedapen legal eta tekniko guztiak jakinarazi badituzte, hain zuzen ere Schengengo Hitzarmeneko 17. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera, bisa-eskaerak bideratzeko erakundearen artean kontsultak egiteko BIS sistema erabiltzeari buruzkoak.

##### *47. artikulua*

#### **Transmisioari hasiera ematea**

Estatu kide bakoitzak interfaze nazionalaren bitartez Batzordeari jakinaraziko dizkio 5. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako datuak BIS sistema nagusira transmititzeko hartu dituzten neurri tekniko eta juridikoak.

##### *48. artikulua*

#### **Eragiketei hasiera ematea**

1. Batzordeak BIS sistemak eragiketei hasiera noiz emango dien zehaztuko du, hau betetzean:

- a) 45. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako neurriak hartzen direnean;
- b) Batzordeak estatu kideekin batera BIS sistema orokorrekin egindako entsegu orokorrak arrakasta izan duela adierazi duenean;



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

c) prozedura teknikoak alde aurretik balioztatu ondoren, estatu kideek 5. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako datuak BISera bidali edo handik jasotzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta legalak hartu dituztela jakinarazi badiote Batzordeari; hain zuzen ere, 4. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, lehen eskualde zehaztuak egindako eskaerei dagozkienak; hots, beste estatu kide baten izenean datuak bildu eta transmititzeko neurriak.

2. Batzordeak 1. ataleko b) idatz-zatian xedatutakoarena arabera egindako frogen emaitzak jakinaraziko dizkio Europako Parlamentuari.

3. Gainerako eskualde bakoitzean, Batzordeak zehaztuko du noiztik aurrera izango den derrigorrezkoa 5. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako datuak transmititzea, estatu kideek 5. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako datuak BISera bidali edo handik jasotzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta legalak hartu dituztela jakinarazi ondoren, dena delako eskualdeko eskabide guztiei dagokienez, beste estatu kide baten izenean datuak bildu eta transmititzeko neurriak barne. Data hori baino lehen, estatu kide bakoitzak eskualde horietako edozeinetan eragiketak egiteari ekin ahal izango dio, Batzordeari jakinarazi ondoren 5. artikuluko 1. paragrafoa a) eta b) idatz-zatietan aipatutako datuak gutxienez BIS sistemara bidali edo handik jasotzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta legalak hartu dituela.

4. 1. eta 3. paragrafoetan aipatutako eskualdeak 49. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako prozeduraren arabera zehaztuko dira. Eskualde horiek zehazteko irizpideak izango dira immigrazio ilegala sortzeko arriskua, estatu kideetako barne segurtasunerako mehatxua eta eskualde horretako herriei buruzko datu biometrikoak jasotzeko bideragarritasuna.

5. Batzordeak Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratuko ditu eskualde bakoitzean eragiketak noiz hasiko diren.

6. Estatu kideek ezingo dituzte beste estatu kide batek BIS sistemara bidalitako datuak kontsultatu, baldin eta alde aurretik estatu kide hori eta hura ordezkatzan duen beste estatu kide bat datuak transmititzen hasi ez badira, 1. eta 3. paragrafoen arabera.

### *49. artikulua*

#### **Komitea**

1. Bigarren belaunaldiko Schengen Informazio Sistemaren ezarpenari, funtzionamenduari eta erabilerari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 20ko 1987/2006 (EE) Erregelamenduaren (SIS II) <sup>(1)</sup> 51. artikuluko 1. paragrafoan xedatutako komitearen laguntza izango du Batzordeak.

2. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 4. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak.

1999/468/EE Erabakiaren 4. artikuluen 3. paragrafoan ezarritako epea bi hilabetekoa izango da.

3. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak. 1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluen 6. paragrafoan ezarritako epea bi hilabetekoa izango da.

### *50. artikulua*

#### **Ikuskapena eta ebaluazioa**

1. Kudeaketa Erakundeak bermatuko du BIS sistemaren funtzionamenduak ikuskatzeko prozedurak ezartzen direla, zerbitzuaren emaitza, errentagarritasun, segurtasun eta kalitateari dagokionez.

2. Mantentze-lan teknikoei dagokienez, Kudeaketa Erakundeak eskubidea izango du BIS sisteman egiten diren tratamendu-eragiketei buruzko informazio guztia ikusteko.

3. BIS sistema abian jarri eta bi urtera, eta handik aurrera bi urtez behin, Kudeaketa Erakundeak BIS sistemaren eta komunikazio-azpiegituraren, segurtasuna barne, funtzionamenduari buruzko txosten bat aurkeztu beharko die Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari.

---

(1) L 381 EO, 2006.12.28koa, 4. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

4. BIS sistema abian jarri eta hiru urtera, eta handik aurrera lau urtez behin, Batzordeak BIS sistemaren ebaluazio globala egin beharko du. Ebaluazio global horretan, helburuen arabera lortutako emaitzak aztertuko dira, eta sistemaren oinarriak indarrean daudela ebaluatuko da. Halaber, egiaztatuko da Erregelamendu hau BIS sistemaren, haren segurtasunaren, 31. artikuluan aipatutako xedapenen eta etorkizunean egin daitezkeen eragiketen ondorio posibleen arabera aplikatzen dela. Batzordeak Europako Parlamentura eta Kontseilura bidaliko du ebaluazio hori.

5. 18. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako epeak igaro baino lehen, Batzordeak txosten bat aurkeztu beharko du. Bertan, kanpoko mugetan hatz-marken erabileran egindako aurrerapenak zehaztu beharko dira, baita pertsona baten bisa-etiketa itsasgarriko zenbakia eta haren hatz-markak erabiliz egindako ikerketetan horrek duen inplikazioetan egindako aurrerapenak ere, betiere kontuan hartuta batzuetan mugetako igarobideetan denbora gehiegi itxaron behar dela, ikerketa horien aurreikusitako iraupena dela-eta. Batzordeak Europako Parlamentura eta Kontseilura bidaliko du ebaluazio hori. Ebaluazio horretan oinarrituta, Europako Parlamentuak edo Kontseiluak Erregelamendu honi buruzko zuzenketa egokiak proposatu ahal izango dizkio Batzordeari.

6. Estatu kideek 3., 4. eta 5. ataletan aipatutako txostenak egiteko beharrezko informazioa emango diete Kudeaketa Erakundeari eta Batzordeari.

7. Kudeaketa Erakundeak 4. atalean aipatutako ebaluazio orokorrak egiteko beharrezko informazioa emango dio Batzordeari.

8. Trantsizio-epean, hau da, Kudeaketa Erakundeak funtzioak bere gain hartu baino lehen, Batzordearen ardura izango da 3. paragrafoan aipatutako txostenak egitea eta aurkeztea.

### *51. artikulua*

#### **Indarrean sartzea eta aplikazioa**

1. Erregelamendu hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu den egunetik hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

2. 48. artikuluko 1. paragrafoan zehaztutako egunetik aurrera izango da aplikagarria.

3. 2008ko irailaren 2tik aurrera izango dira aplikagarriak 26., 27., 32. eta 45. artikulukoak, 48. artikuluko 1., 2. eta 4. paragrafoak eta 49. artikulua.

4. 26. artikuluko 4. atalean aipatutako trantsizio-epeak irauten duen bitartean, Batzordea aipatzen dela ulertuko da Erregelamendu honetan Kudeaketa Erakundea aipatzen denean.

Erregelamendu honetako elementu guztiak derrigorrezkoak izango dira eta estatu kide guztietan zuzenean aplikagarriak izango dira, Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren arabera.

Estrasburgon eginga, 2008ko uztailaren 9an.

*Europako Parlamentuaren izenean*  
*H.-G. PÖTTERING*  
*Presidentea*

*Kontseiluaren izenean*  
*J.-P. JOUYET*  
*Presidentea*

## ANEXO

**Lista de organizaciones internacionales a que se refiere el artículo 31, apartado 2**

1. Órganos de las Naciones Unidas (como ACNUR).
  2. La Organización Internacional para las Migraciones (OIM).
  3. El Comité Internacional de la Cruz Roja.
-